

# TXERTATU MERKATUAN

## LANERATZEKO ETA GIZARTERATZEKO AUKERAK ESKAINTZEN DIZKIE 500 GAZTE BAINO GEHIAGORI

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Europar Batasuna**
**Europako Gizarte Funtsa**
**Gazte Enpleguaren gaineko Ekimena**
EGFk zure etorkizunean inbertitzen

**Unión Europea**
**Fondo Social Europeo**
**Iniciativa de Empleo Juvenil**
El FSE invierte en tu futuro

Garapen
etorkizuna lantzen
por y para el desarrollo
GARAPEN AGENTZIEN EUSKAL ELKARTEA
ASOCIACIÓN VASCA DE AGENCIAS DE DESARROLLO

TXERTATU MERKATUAN



LANERATZEKO ETA GIZARTERATZEKO AUKERAK ESKAINTZEN DIZKIE 500 GAZTE BAINO GEHIAGORI

# 1/ Zer da Txertatu Merkatuan

**AUKERA BAT:**

**Kualifikazio gutxiko 16-30 urteko gazteak, lanik gabe daudenak eta prestakuntzarik jasotzen ari ez direnak** aurrerago prestakuntza-prozesuetan parte hartzeko edo lan-zirkuituetan sartzeko.

**IRTENBIDE PERTSONALIZATUA:**

Beste ingurune batzuetan arrakasta izan duten **irtenbide berritzaileak** aplikatzen ditu**, gaur egun beren premietara egokitutako baliabiderik ez duten gazteei** irtenbide bat emateko.

**LANKIDETZA PROIEKTU BAT:**

**Hainbat eragilerekin** lankidetzan aritzen da, batez ere, **Gizarte Zerbitzuetako** Sailekin, **Lanbide Heziketako eta lanbide-hastapenetarako ikastegiekin, Lanbiderekin** eta abarrekin.

**DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMA:**

**Txertatu Merkatuan proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020ko Gazte Enplegurako Programa** Operatiboan kokatzen da eta **Europako Gizarte Funtsak finantzatzen du % 91.89an.**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Garapen





## 2/ Helburua: gizarteratzea eta laneratzea

- **Gizarte eta lan integrazioa ahalbidetzeko ibilbide pertsonalizatuen garapena.** Parte-hartzaileei euren zailtasunak gainditzea eta prestakuntzara hurbiltzea ahalbidetzen dieten ibilbideak.

- **Prestakuntza bizitza-proiektuaren ardatz motibatzaile gisa,** ondoren enplegura igarotzea ahalbidetuko diena.

- **Proiektu bat ebaztera bideratutako ikuspegi praktikoa**, taldeak ispilu gisa jardunez eta ikaskuntza partekatua eta **adostua** garatuz.





## 3/ Gizarteratzeko eta laneratzeko bi fase

Txertatu Merkatuan proiektuak izangaiaren profiletara egokitutako **honako bi fase hauez osatutako ibilbide bat** proposatzen du: **Egokitu eta Trebatu.**

**EGOKITU**

**TREBATU**
- **Tailer erdi-produktibok**
- **Gaitasun teknikoetan prestatzeko tailerrak**
- **Gizarte Berrikuntza**





# 3/ Gizarteratzeko eta laneratzeko bi fase

## 3.1 EGOKITU

**Ibilbidearen hasierako unea da eta pertsonen gaitasun profesionalak identifikatzen hasten dira.** Fase honetan pertsonari laguntzen diogu lan gaitasunak identifikatzen eguneroko zereginetan, eta lan-profila eraikitzen laguntzen diegu.

### HELBURUA:

- Lan-profil bat eraikitzea.
- Elkarrekiko laguntzan eta taldearen lankidetzan oinarritutako sinergia.
- Aintzatespen soziala.

### EKINTZAK:

**Bakarka eta taldeka. Langabezian dauden gazteen (lan esperientziarik ez dutenak) lan-gaitasunak identifikatzeko, eta enpresek erabiltzen duten hizkuntzara egokitzeko.**





# 3/ Gizarteratzeko eta laneratzeko bi fase

## 3.2 TREBATU

Egokitun parte hartzen duten gazteek **Trebatu programako ondorengo ekimeneren batean parte hartuko dute** (norberaren egoera eta **laneratze maila** kontuan hartuta).

### EKINTZAK:

- **Tailer erdi produktiboak:** Oinarrizko gaitasun profesionalak (pertsonalak eta gizarte-, harreman- eta antolaketa-arlokoak) ez dituzten gazteei zuzenduak.

- **Gaitasun teknikoetan prestatzeko tailerrak:** Gazteei zuzendutako tailerrak dira prestakuntza prozesuetan sartzeko zailtasunak dituztenak, baina ikasteko prest daudenak.

- **Gizarte-berrikuntzako jardunak garatzeko gaitasun-tailerrak:** Langabezian dauden gazteei zuzenduta. Aurrekoek baino prestakuntza-maila altuagoa dutenak, eta oinarrizko gaitasun profesionak dituztenak.





# 3/ Gizarteratzeko eta laneratzeko bi fase

### 3.2 TREBATU

➡ **Tailer erdi produktiboak: gizarte-heziketa** gunea. Ondorengo helburuak ditu:

- Ikasketa gaitasun eta jarrerak berreraiki.
- Gaitasunak sustatu, baita baliabideak eta tresnak ere prestakuntza prozesuetan integra daitezen.
- Prestakuntza bizitza proiekturako motibazio-ardatz gisa lan-txertatzea ahalbidetzeko.

**Etengabeko laguntza-lana**

**Ekimen erdi-produktibo erakargarriak**

***Bizikleta konponketa eta errestaurazio tailerra***

***Hiriko Ortu ekologikoak***



# 3/ Gizarteratzeko eta laneratzeko bi fase

### 3.2 TREBATU

**Gaitasun teknikoetan prestatzeko tailerrak:** 1 mailako ezagutza teknikoak barneratu eta garatzeko baliabidea. (Enpresek eskatzen diztuzten ezagutza teknikoak hain zuzen ere). Prestakuntza-maila baxuko lan postuan txertatzen laguntzeko, edota prestakuntza aurreratuan txertatzeko.

180 orduko lan-praktikak egin ahalko dituzte.

*Mekanizazioa, Merkataritza…*



# 3/ Gizarteratzeko eta laneratzeko bi fase

## 3.2 TREBATU

➡ **Gizarte-berrikuntzako jarduerak garatzeko gaitasun tailerrak:** Komunitatean eragiteko baliabidea gizarte onuran eraginez eta benetako premiei erantzunez:

***Hirugarren adina, ingurumena, Turismoa, Irudia, Marketing Digitala***

**Motibazioa sustatu** nahi da araututako prestakuntzarekin aurrera jarraitzeko, lan-txertatzea ahalbidetzeko eta lana bilatzen laguntzeko.



## 4/ Kudeaketa sarean

**Garapenek** eta **hemeretzi Tokiko Garapen Agentziak** osatutako sare batek kudeatuko du **Txertatu Merkatuan** proiektua**.**

Garapen-agentziak biltzen dituen elkarte profesionala da **Garapen**, eta haren helburua da agentzia bakoitzari dagokion eskualdean eta udalerrian garapen ekonomikoa sustatzea.

Honako hauek dira **Garapenekin** batera **Txertatu Merkatuan** programan parte hartzen duten agentziak: Amurrio Bidean, Andoaingo Udala; Bermeo, Mundaka eta Sukarrietako Behargintza; Debagoieneko Mankomunitatea, Debegesa, Durangaldeko Behargintza, Erandioko Behargintza, Gernikako Lanbide Ekimenak Zentroa, Inguralde, Iraurgi Lantzen, Laudio Udala Garapen Agentzia, Lea-Artibaiko garapen-agentzia, Leioako Behargintza, Meatzaldeko Behargintza, Oarsoaldea, Tolosaldea Garatzen, Uggasa, Urduñederra, Urola Kostako Udal Elkartea.





# 4/ Kudeaketa sarean

## 4.1 ERAGILE LAGUNTZAILEAK

Txertatu Merkatuan programak **eragile laguntzaileen** (Lanbide, gizarte-zerbitzuak, prestakuntza-zentroak…) **parte-hartzea** sustatuko du, programa zabaltzen lagunduko duten akordioen bidez eta parte-hartzaileak erakarriz.

## 4.2 KANPAINA

Garapenek eta garapen-agentziek **Txertatu Merkatuan** programa ezagutarazteko, eta parte-hartzaileak erakartzea eta izen ematea errazteko, informazio-kanpaina bat jarri dute martxan.



# 4/ Kudeaketa sarean

## 4.2 KANPAINA:

**KANPAINAREN IRUDIA**







Zuen laguntza eskatzen dugu euskal gizarteari TXERTATU MERKATUAN programari buruz informatzeko.

TXERTATU MERKATUAN



**LANERATZEKO ETA GIZARTERATZEKO AUKERAK ESKAINTZEN DIZKIE 500 GAZTE BAINO GEHIAGORI**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtsa
Gazte Enpleguaren gaineko Ekimena
EGFk zure etorkizunean inbertitzen

Unión Europea
Fondo Social Europeo
Iniciativa de Empleo Juvenil
El FSE invierte en tu futuro

Garapen
etorkizuna lantzen
por y para el desarrollo